

2018ko AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK JORRATZEKO AKORDIOA


Dokumentu honen bitartez, Baleike Udal Taldeak eta Arrasateko Udal Gobernuak oinarritzko konpromezu minimoak akordatzen dituzte, 2018-an Arrasateko Udal Aurrekontuak partehartzaileak izan daitezen. Akordio honen xedea alderdi politikoen artean mahainguru bat zabaltzea da, aurrekontu partehartzaileak izateko prozesua elkarlanean eztabaidatu eta garatzeko. Honetarako, prozesuak oinarritzko bermeak izan ditzan, puntu batzuk adostea beharrezkoa da bideari trinko eta segurtasunez ekiteko.

Honenbestez, Baleike Udal Taldeak eta Arrasateko Udal Gobernuak ondorengo puntuak adostu eta gain hartzen dituzte, alde bakoitzak modu trinkoan defendatuz akordioan adostutako puntuak, konpromezu eta borondate politikoa hauen zerbitzura ezarriz, aurrekontu partehartzaileen oinarri bezala:

- Udal barnean mahainguru bat eratuko da, non alderdi guztiak parte hartu ahal izango duten, 2018ko Aurrekontu Partehartzaileen prozesua landu eta garatzeko.
- Aurrekontu partehartzaileak gutxienez, bi arlotan banatuko dira. Alde batetik auzoetarako behar eta proiektuak, non auzo guztietako kide eta erakundeek aurkeztu ahal izango dituzten proposamenak; eta beste aldetik herri mailako proiektu eta programak.
- Erreminten artean, Arrasate Udaleko webgunean lehentasunezko leku bat emango zaio, bereizitako atal bat, ondo banatutako informazio eskuragarri eta ulergarriarekin. Auzoetan adostutako esparru fisikoetan buzoiak ezarriko dira. BAZ bulegoak ere erreferentzia puntu izango dira.
- Auzoetan esparru presentzialak ezarriko dira non prozesuan zehar hiritarrek informatzeko, eztabaidatzeko eta proposamenak igortzeko aukera izango duten..

- Udal administrazioa proposamenen bideragarritasun ekonomiko eta teknikoaz aztertzeaz kargu egingo da. Proposamen batek ez baditu minimo batzuk betetzen prozesuan parte hartzeko, proposamenaren igorleari erantzun egingo zaio zergaitia azaltzen. Aurkeztutako proposamen guztiak publiko egingo dira eta bozketan irabazle irtetzen diren proposamenen txosten teknikoak ere bai.
- Bide osoan udalak konpromezu irmoa izango du prozesuaren hedaketa informatzaile eta herritarren parte hartze sustapenarekin. Hortarako ekintza informatiboak eta kanpainak egingo dira, herritarren aldetik ahalik eta inplikazio handiena lortzeko.
- 18 urtetik gora eta Arrasaten erroldatutako pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute bai proposamenak aurkezteko eta baita bozkatzerako orduan ere; udal eta auzo arloetan. Parte hartzea errazteko, erreminta telematiko eta presentzialak erabiliko dira.
- Prozesuaren bukaeran aukeratzen diren proposamenak Udal Aurrekontuen hasierako onespenean sartuko dira, Osoko Bilkuran Aurrekontuen osotasunean bozkatuak izateko.
- Udal honek parte hartze ordenantza baten eraketa eztabaidatuko du Aurrekontu Partehartzaileak isladatuko dituena.

IGOR URIZAR MURGOITIO



EVA ABUIN BIDEBURU



MARIA UBARRETXENA CID



OSCAR GARCIA HORRILLO

